2. Eskumenak dituen organoak hainbanaketa egingo du dirulaguntzaren onuradunen artean, dirulaguntzetarako gehieneko zenbateko orokorra hainbanaketako delarik. Horretarako, eskari guztiak berrikusiko dira eta bakoitzean aurkeztutako dirulaguntza jaso dezaketenean gastuak araztuko dira. Hori egin ondoren, eskari bakoitzari diruz lagun daitekeen gastu araztuaren gaineko dagokion ehunekoa emango zaio. Dekretuaren kreditua ez bada nahikoa, dirulaguntzetarako onartutako gastuekiko emandako dirulaguntzaren ehunekoa proportzionalaren murrizketa aplikatuko da.

2. El órgano competente procederá al prorrateo, entre las beneficiarias de la subvención, del importe global máximo destinado a las subvenciones. Para ello, se van a revisar todas las solicitudes y depurar los gastos subvencionables que presenta cada una de ellas. Una vez depurados, se concede a cada solicitud el porcentaje correspondiente sobre el gasto subvencionable depurado. Si el crédito del decreto fuera insuficiente para ello, se aplicará una reducción proporcional en el porcentaje de subvención concedido sobre el gasto subvencionable.

Hainbanaketa horren ondorioz, eskari guztiei onetsitako dirulaguntzetarako onartutako gastuen zenbateko berdina esleituko zaie muga hauekin:

Como consecuencia de este prorrateo, a todas las solicitudes se les asignará el mismo porcentaje de





subvención sobre los gastos subvencionables admitidos con los siguientes límites:

a) Ikus-entzunezko proiektuen preproduzio-gastuak finantzatzeko dirulaguntzen kasuan, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren % 50 izango da, eta ez da inola ere izango eskaturikoa baino gehiago, ez eta honako kopuru hauek baino gehiago ere:

1) 40.000,00 euro.

2) 50.000,00 euro, euskara hutsez egindako proiektuen kasuan.

b) Produktore Zinematografikoen Elkarleen Nazioarteko Federazioak (FIAPF) aitorturiko nazioarteko jaialdietan, Euskal Autonomia Erkidegoko zinema-emanaldietarako areto komertzialetan, plataforma digitaletan edota telebistan programaturiko ikus-entzunezko proiektuak sustatzeko gastuak finantzatzeko dirulaguntzen kasuan, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren % 50 izango da, eta ez da inola ere izango eskaturikoa baino gehiago, ez eta honako kopuru hauek baino gehiago ere:

1) 20.000,00 euro.

2) 25.000,00 euro, euskara hutsez egindako proiektuen kasuan.

10. oinarria. *Aholkularitza.*

Euskara, Kultura eta Kirol Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza emango du foru-dekretu honekin lotutako edozein zalantza edo kontsultaren gainean. Horretarako, helbide hau dago erabilgarri webgunean:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza>

11. oinarria. *Ebazpena.*

a) Para subvenciones destinadas a financiar los gastos de preproducción de proyectos audiovisuales, el importe máximo de subvención será de hasta el 50 % del presupuesto depurado del proyecto presentado, y no superará en ningún caso el importe solicitado, ni ninguna de las siguientes cantidades:

1.º 40.000,00 euros.

2.º 50.000,00 euros en el caso de proyectos realizados íntegramente en euskera.

b) Para subvenciones destinadas a financiar los gastos de promoción de proyectos audiovisuales programados en festivales internacionales reconocidos por la Federación Internacional de Asociaciones de Productores Cinematográficos (FIAPF), en salas comerciales de exhibición cinematográfica de la Comunidad Autónoma Vasca, en plataformas digitales y/o en televisión, el importe máximo de subvención será de hasta el 50 % del presupuesto depurado del proyecto presentado, y no superará en ningún caso el importe solicitado, ni ninguna de las siguientes cantidades:

1.º 20.000,00 euros.

2.º 25.000,00 euros en el caso de proyectos realizados íntegramente en euskera.

Base 10. *Asesoramiento.*

El Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte prestará el apoyo técnico o asesoría necesaria, ante cualquier duda o consulta referida al presente decreto foral. A estos efectos se encuentra disponible la siguiente dirección en la página web:

<http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza>

Base 11. *Resolución.*





1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, ez da aurreikusten deialdi honetan interesdunei lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena emango zaienik, behin entzunaldiaren izapidea eskaini eta gero, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatuko du eskabideek egunean dauzkatela beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar izateagatik. Egiaztapen hori egin ondoren, ikusten bada eskatzaileren batek ez duela betetzen betebeharrak horietako edozein, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean bere eskabidean atzera egindakotzat joko dela, behin ebazpena emanda.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru (3) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuak emango du ebazpena, Kultur Ekintzako Zerbitzuaren txostena jaso ondoren.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresuki eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez ere helaraziko zaie foru-agindua interesdunei.

1. No se prevé que en esta convocatoria se emita, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, la resolución, en primer lugar, a través de una propuesta de resolución provisional tras la que se conceda trámite de audiencia a las interesadas, puesto que no figurarán en el procedimiento ni serán tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las interesadas.

2. Previo a la resolución de la convocatoria, el Servicio de Acción Cultural comprobará que las solicitantes se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social y que no sean deudoras por reintegro de subvención. Si como consecuencia de tal comprobación resultare que alguna solicitante incumple cualquiera de tales obligaciones, será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con advertencia de que, en otro caso, su solicitud será dada por desistida, previa la correspondiente resolución.

3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución de las solicitudes será de tres (3) meses, a contar desde la finalización del plazo de entrega de solicitudes.

La resolución será dictada por la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, previo informe del Servicio de Acción Cultural.

Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de la misma, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

4. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las interesadas que hayan presentado solicitud a los efectos de esta convocatoria pública mediante publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

También se comunicará a las interesadas mediante el sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.





Jakinarazpenean beren-beregi jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta haren aurka errekurtsio hauek aurkez ditzakeela behean interesdunak: aukerako berraztertze-errekurtsioa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren aurrean hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen.

Contendrá expresa mención a que la misma agota la vía administrativa, y podrá ser recurrida por la interesada interponiendo contra ella, con carácter potestativo, recurso de reposición ante la Ilma. Sra. diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación o recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses, contados de igual forma.

12. oinarria. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Base 12. Compatibilidad con otras subvenciones.

1. Foru dekretu honetako dirulaguntzekin bateragarriak izango dira estatuko nahiz Europar Batasuneko zein nazioarteko erakundeetako edozein administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatutatik datozen, eta helburu bera duten, dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak, salbu eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak berak emandakoak.

1. Las subvenciones del presente decreto foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, a excepción de las concedidas por el propio Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia.

2. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo ente publiko batek emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru-dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste dirulaguntza edo laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bat eginda, inola ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

2. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos otorgados por otras administraciones o entes públicos, municipales, autonómicos, estatales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, dado que el importe de las subvenciones reguladas en el presente decreto foral, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, superen el coste de la actividad que desarrolle la beneficiaria.

3. Foru dekretu honetan jasotako diru-laguntzek Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Araudian xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2023ko abenduaren 15eko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (2831. zenbakian), eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

3. Las subvenciones contempladas en el presente decreto foral están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2023/2831 de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis (publicación en el Diario Oficial de la Unión Europea DOUE 2831 el 15 de diciembre de 2023).





Ondorioz, emandako minimis laguntza, guztira, ezin izango da 300.000 eurotik gorakoa izan dirulaguntza eman aurreko hiru urteetan, datatik datara zenbatuta.

En consecuencia, la ayuda total de minimis concedida no podrá exceder de 300.000 euros en un período de tres años anteriores a la fecha de concesión, computados de fecha a fecha.

TITULUA IV

TÍTULO IV

Diru-laguntzak kudeatzea eta justifikatzea

Gestión y justificación de las subvenciones

13. oinarria. *Diru-laguntza ordaintzea.*

Base 13. *Pago de la subvención.*

1. Deialdi hau ebazten duen foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamar egun baliodunera onuradunak ez badio berariaz eta idatziz emandako dirulaguntzari uko egiten, ulertuko da onuradunak onartu egin duela, eta Kultur Ekintzako Zerbitzuak diru-laguntzaren zenbatekoaren ordainketa izapidetzen hasiko da, Ogasun eta Finantzen Foru Sailean; horretarako, onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko.

1. Si en el plazo de diez días hábiles tras la fecha de publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia de la orden foral que resuelve la presente convocatoria la beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la subvención concedida, se entenderá que ésta queda aceptada, y el Servicio de Acción Cultural procederá a tramitar su abono ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a las beneficiarias.

Hala ere, onuradunen batek edo batzuek emandako diru-laguntzari uko egiten badiote, uko horrek ez du inola ere ekarriko deialdi honen ebazpenaren baldintzak aldatzea.

No obstante, si alguna o algunas beneficiarias renunciasen a la subvención concedida, dicha renuncia no implicará en ningún caso la modificación de los términos de la resolución de la presente convocatoria.

2. Dirulaguntza ordaindu baino lehen, onuradunek tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun diru laguntza itzuli behar dutela-eta.

2. Previo al pago de la subvención, se comprobará que las beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que no sean deudoras por reintegro de subvención.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que alguna beneficiaria incumple cualquiera de las obligaciones señaladas, esta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice dicha situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida.

14. oinarria. *Dirulaguntza onuradunaren borondatez itzultzea.*

Base 14. *Devolución a iniciativa de la perceptora.*

1. 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera

1. De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el





(dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza, foru-erakundeak aurretik eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Onuradunak ordainketa-gutun bat erabili behar du diru-laguntza forala bere ekimenez itzultzeko. Ordainketa-gutun hori Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-laguntza itzultzeko arrazoia. Hori guztia itzuli behar den diru-laguntzari erreferentzia eginez adieraziko da.

3. Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, egoitza elektronikoen bidez diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuari.

15. oinarria. *Justifikazioa egiteko epea eta era.*

Foru-dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

1. Diruz lagundutako jarduera 2024. urtean gauzatzea.

2. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamenduaren 57. artikuluekin bat etorrira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean justifikatu behar dute proiektua egin dela, hura emateko oinarrizkoak izan ziren baldintzak bete direla eta diruz lagundutako proiektuaren

que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última.

En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

2. La devolución de la subvención foral a instancia de la beneficiaria, se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio de Acción Cultural. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses de demora), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

3. Una vez practicado el abono por la beneficiaria de la subvención en una entidad financiera, habrá de remitirse a través de la sede electrónica justificante del respectivo ingreso al Servicio de Acción Cultural del departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

Base 15. *Plazo y forma de justificación.*

Las beneficiarias de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral se comprometen a:

1. Ejecutar la actividad subvencionada en el año 2024.

2. Conforme al artículo 57 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, justificar ante el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia la realización del proyecto, el cumplimiento de las condiciones que motivaron su concesión y la





zenbateko araztuaren gastua jarduerari aplikatu zaiola, horretarako agiri hauek bete eta aurkeztu beharko dira, Bizkaiko Foru aldundiaren egoitza elektronikoa 2025eko martxoaren 18ra arte hurrengo helbidean:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

a) Ikus-entzunezko proiektuaren preproduzio- eta sustapen-jarduerak justifikatzeko jarduketa-memoria, jardueron azalpen zehatza eta xehatua jasotzen duena.

Zabalkundea egiteko egin diren jarduerak egiaztatuko dira zelan eta sinatutako kontratuen bidez edo egindako jarduerak egiaztatzen dituzten beste agiri batzuen bidez.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

1) Proiektuari egotzitako diru-sarreraren eta gastuen egoera-orria.

2) Gastu-partida bakoitzean, dirulaguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda sailkatua.

3) Aurreko zenbakian aipatutako zerrendan jasotzen diren fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio bera duten edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak eta ordainketa egiaztatzeko agiriak.

4) Dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen zerrenda zehatza, eta, hala bada, finantzaketa propioarena ere bai, baldin eta horiek finantzatu badute dirulaguntza jaso duen jarduerari; xehetasun hori egingo da partida bakoitzaren arabera.

c) Diruz laguntzeko gastuaren aurrekontua justifikatzeko, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru diru-laguntzaren erakunde onuradunak egiaztapenak aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailek egin dizkieten eskaintzak justifikatzeko,

aplicación del gasto del importe depurado del proyecto subvencionado a través de la cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia de la documentación que a continuación se relaciona, fijándose como último día para ello el 18 de marzo de 2025 en la siguiente dirección:

<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

a) Memoria de actuación justificativa de las actividades de preproducción y promoción del proyecto audiovisual, que incluya una explicación precisa y detallada de las mismas.

Dichas actividades se acreditarán mediante los contratos suscritos u otros documentos que acrediten las actividades realizadas.

b) Una memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas que contendrá:

1.º Estado de ingresos y gastos imputados al proyecto.

2.º Para cada una de las partidas de gasto, una relación clasificada de gastos de la actividad subvencionada.

3.º Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y la documentación acreditativa del pago.

4.º Una relación detallada de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, en su caso, que hayan financiado la actividad subvencionada, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos.

c) A los efectos de la justificación del presupuesto de gasto subvencionable, y en aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, la entidad beneficiaria de la subvención foral debe aportar justificación documental que acredite como mínimo las ofertas de los tres diferentes proveedores





baldin eta Sektore Publikoaren Kontratuen berezko araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gaintzen badira, salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada.

realizadas cuando se superen las cuantías establecidas en la normativa propia de los Contratos del Sector Público para el contrato menor, salvo que por las especiales características del mismo no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo presten o que el gasto se haya realizado con anterioridad a la solicitud.

Aurkezten diren eskaintzen artean aukeratzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera jokatu da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

La elección entre las ofertas presentadas se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

d) Sustapen-materialaren kopia bat, erraz ikusteko eran agertu behar duena jarduera horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso duela; horretarako, elementu instituzionalak sartuko dira materialean, foru-dekretu honen 16. oinarriaren e) letran ezartzen den moduan, laguntza eman dela jakinarazi ondoren egindako jarduerari bakarrik dagokie betebeharrak.

d) Una copia del material de promoción donde deberá constar en lugar visible que la actividad ha sido subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia, a cuyos efectos se insertará en estos los elementos institucionales de esta en los términos previstos en la letra e) de la base 16 del presente decreto foral. Dicha obligación afecta a las actividades realizadas una vez que ha sido notificada la concesión de la subvención.

16. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunaren beste betebeharrak.*

Base 16. *Otras obligaciones de la beneficiaria de la subvención.*

Onuradunak betebeharrak hauek ere izango ditu:

La beneficiaria estará igualmente obligada a:

a) Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldatetarik izan badu, horren berri ematea Kultur Ekintzako Zerbitzuari, egoitzaren bidez.

a) Comunicar por sede al Servicio de Acción Cultural la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

b) Egoitzaren bidez, jardueraren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea Kultur Ekintzako Zerbitzuari. Halaber, diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipen egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.

b) Comunicar por sede al Servicio de Acción Cultural las fechas de inicio y de terminación de la actividad y facilitar la realización de las funciones o facultades de control, seguimiento e inspección de la actividad subvencionada.

c) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta kultura-eremuko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).

c) Colaborar con el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte en aquellos supuestos, en los que le sea requerido, aportando cualquier tipo de información relativa al ámbito cultural (estudios, encuestas, datos estadísticos, etc.).





d) Euskara, Kultura eta Kirol eta Ogasun eta Finantza sailek eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztatzeko egin dezaketen behar beste jardun onartzea.

e) Dirulaguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babes a gerraraztea; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi korporatiboan ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz:

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza / Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

Euskara hutsean garatutako proiektuetan, gainera, euskararen txantxangorriaren irudia sartu beharko da.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea diru-laguntzaren xede den jardueraren publizitatean eta hedapenean, bai euskarri grafikoan, bai ikus-entzunezko baliabideetan (era guztietako iragarkiak, kartelak, liburuxkak, etab.). Halaber, euskara erabili beharko du diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

g) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.

d) Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúen los departamentos forales de Euskera, Cultura y Deporte y de Hacienda y Finanzas, así como el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

e) En todo material editado y en toda comparecencia pública realizada con posterioridad a la concesión, deberá hacerse constar el apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia; se utilizarán, para ello, obligatoriamente los elementos establecidos en la imagen corporativa de la Diputación Foral de Bizkaia, incluyendo junto al logotipo la siguiente frase literal:

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza / Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

En los proyectos desarrollados íntegramente en euskera, deberá incluirse, además, la imagen del “Txantxangorri” del euskera.

f) Utilizar las dos lenguas oficiales en la Comunidad Autónoma Vasca en la publicidad y difusión de la actividad objeto de subvención, tanto en soporte gráfico como en medios audiovisuales (todo tipo de anuncios, carteles, folletos, etc.). Asimismo, deberá utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada, y todo ello de acuerdo con lo establecido en artículo 13 del Decreto Foral 63/2019 de 28 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

g) Promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.





h) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

i) Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsona buri buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua.

j) Egiaztatzea, hala dagokionean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela. Horretarako, betebehari betetzea buruzko erantzukizunpeko adierazpena bete beharko dute justifikazioarekin batera.

k) Plantillan hamabost langiletik gora izanez gero, bermatu beharko dute neurriak hartzen dituztela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatze eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko. Horretarako, betebehari betetzea buruzko erantzukizunpeko adierazpena bete beharko dute justifikazioarekin batera.

l) Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak deitutako bilera, foro eta gainerako koordinazio-ekitaldietara joatea.

h) Velar por que el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

i) Asumir, en la ejecución del proyecto subvencionado, el uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) en cualquier soporte escrito o digital, y desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que, en su caso, se genere, todo ello al amparo del artículo 3 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

j) Acreditar, cuando proceda, el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres, conforme a lo previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo de 2007, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva. A estos efectos, deberán cumplimentar, junto con la justificación, declaración responsable del cumplimiento de esta obligación.

k) Aquellas que cuentan con más de quince personas trabajadoras en plantilla deberán garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo. A estos efectos, deberán cumplimentar, junto con la justificación, declaración responsable del cumplimiento de esta obligación.

l) Asistir a las reuniones, foros, comisiones y demás actos de coordinación convocados por la Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.





m) Onuradunak ez du enpresa deslokalizaziorik egin behar, martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

n) Deialdi honi dagokionez, dirulaguntza foral baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Dirulaguntzen Erregelamenduaren 53. artikuluan azpikontratazioaren arloa dela eta arautzen diren betekizunak eta debekuak.

Onartutako azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa diruz lagundutako jardueraren % 90 izango da.

ñ) Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Dirulaguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.

17. oinarria. Itzulketa.

1. Jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta aurreko oinarrietan ezarritako betebeharren bat edo batzuk betetzen ez badira edo Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzen Erregelamenduan aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada, besteak beste:

a) Diru-laguntza lortzeko, bete beharreko baldintzak faltsutu edo laguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkutatzen direnean.

b) Xedea, jarduera, proiektua edo diru-laguntza emateko funtsa den jokaera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean.

c) Justifikazioaren betebeharra ez betetzea.

m) No incurrir en deslocalización empresarial, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 3 de la Norma Foral 7/2007, de 27 de marzo.

n) A los efectos de la presente convocatoria, las beneficiarias de subvención foral quedan obligadas al cumplimiento de los requisitos y prohibiciones regulados en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005 y en el artículo 53 del Reglamento foral de subvenciones, en materia de subcontratación.

El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90 % del importe de la actividad subvencionada.

ñ) Las demás previstas en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia y en los artículos 54 y siguientes del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo.

Base 17. Reintegro.

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en las bases anteriores o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, o en el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, entre otras:

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación.





d) Dirulaguntza nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den dirulaguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, horretarako Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintza Zerbitzuak eskaera egin ondoren.

d) La justificación insuficiente o deficiente conllevará la obligación de reintegro, incluidos los correspondientes intereses de demora, de la parte de la subvención no justificada, previo requerimiento por parte del Servicio de Acción Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.

e) Ezarritako kontrol-jarduketak egiten ez uztea, edo horretarako oztopoak jartzea.

e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas.

f) Foru-dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak ez betetzea.

f) Incumplir los demás supuestos previstos en el presente decreto foral.

2. Dirulaguntza jaso duen jarduketaren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, laguntza itzuli egin beharko da.

2. El exceso de financiación con relación al coste de la actividad subvencionada también constituirá motivo de reintegro.

3. Era berean, emandako diru-laguntza itzuli beharko da, dagokion proportzioan, baldin eta jardueraren amaierako kostua aurrekontuan adierazitakoa baino txikiagoa bada.

3. Igualmente procederá el reintegro de la subvención concedida, que será proporcional, cuando el coste final de la actividad resulte inferior al presupuestado.

18. oinarria. *Datu pertsonalen babesa.*

Base 18. *Protección de datos de carácter personal.*

Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordezkari aplikatu beharreko gainerako araudia.

Será de aplicación la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, así como la restante normativa que resulte de aplicación con carácter subsidiario o supletorio.

19. oinarria. *Aurrekontuko partida.*

Base 19. *Partida presupuestaria.*

1. Deialdi honetako dirulaguntzak emateko 2024. urtean indarrean dagoen aurrekontu muga hau da:

1. El límite presupuestario vigente en el año 2024 para la concesión de las subvenciones de la presente convocatoria es el siguiente:

Hirurehun mila (300.000,00) euro, 2024ko ekitaldiko aurrekontuko 2023/0025 gastu-proiektuko 0405 G/334104/44300 aurrekontuko partidaren kargura.

Trescientos mil (300.000,00) euros con cargo a la partida presupuestaria 0405 G/334104/44300, proyecto 2023/0025, del presupuesto del ejercicio 2024.

2. Aurrekontuaren muga honako modu honetan banatuko da:

2. Este límite presupuestario se distribuirá de la siguiente manera:





a) Ikus-entzunezko proiektuen preproduzio-gastuak finantzatzeko dirulaguntzak: ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) euro.

b) Produktore Zinematografikoen Elkarteen Nazioarteko Federazioak (FIAPF) aitorturiko nazioarteko jaialdietan, Euskal Autonomia Erkidegoko zinema-emanaldietarako areto komertzialetan, plataforma digitaletan edota telebistan programaturiko ikus-entzunezko proiektuak sustatzeko gastuak finantzatzeko dirulaguntzak: ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) euro.

3. Modalitate bakoitzaren barruan aurrekontuko kreditu guztia ematen ez bada, adjudikatu gabe dagoen zenbatekoa gainerako modalitateetan metatu ahal izango da.

3. Eskabide guztiak ebatzi ondoren emandakoa aurrekontuetako goreneko mugara heltzen ez bada, gastu-baimenaren deuseztapena izapidetuko da sobera den zenbatekoan.

a) Para las subvenciones destinadas a financiar los gastos de preproducción de proyectos audiovisuales: ciento cincuenta mil (150.000,00) euros.

b) Para subvenciones destinadas a financiar los gastos de promoción de proyectos audiovisuales programados en festivales internacionales reconocidos por la Federación Internacional de Asociaciones de Productores Cinematográficos (FIAPF), en salas comerciales de exhibición cinematográfica de la Comunidad Autónoma Vasca, en plataformas digitales y/o en televisión, ciento cincuenta mil (150.000,00) euros.

3. En el caso de que no se concediera todo el crédito presupuestado para cada una de las modalidades, podrá acumularse la cantidad no adjudicada a la otra modalidad.

4. Si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización del gasto por el importe sobrante.

